

ZENBAT MIXERIA... (II)

Imanol Miner Aristizabal

lazko urtekarian sekulako hustaldia egin nuen euskalgintza eta bere inguruari halako errepasso bat emanda, aurten kulturgintzako hainbat esparruren gainean jardungo naiz.

Herriko kulturgile bati baino gehiagori hauxe entzuna diet: Gurean euskarazko kulturgintzan KULTURA letra larriekin eta kultura letra lauekin egiten duten erakundeak bereizten dira. KULTURA egiten dutenen artean daude kultur erakunde instituzionalizatuenak eta halaber udalaren kultur aurrekontutik bere bazka segurtatzen dutenak, alegia Andra Mari Abesbatza eta Ereintza Elkartea; kultura egiten dutenak berriz, bazka horretako apurrekin konformatu beste aukerarik ez duten gainontzeko erakundeak izaten dira. KULTURA letra larriekin egiten dutenetaz ariko naiz beraz idazlan honetan.

Tiki-tikitatik, herriko kultur erakunde hauen altxotik pasatakoa naiz guztietan zerbait ikasi dudalarik, dantza Ereintza dantza taldean eta kantua Orereta eta Oinarri abesbatzetan eta guztietatik aldendu xamartuta banago ere, interes handiarekin jarraitzen dut bakoitzaren jarduna. Egiazki ez dakit erakunde hauen sorrerako estatuetan zein helburu zehazten diren baina horrelakoetan "kultur adierazpideen berreskurapena" edo "gizarteratzea" eta

gisako helburu orokorretatik urrun ez direla egongo pentsatzen dut.

Bi erakundeek, bakoitzak bere mailan jorratu dituzte nazio euskaldunaren kultura adierazpenak baina beti ikusmira beretik: inoizko tradizioa berreskuratzearen ikuspegitik, noizbait bizia izan zen eta orain zaharkitua edo hilik dagoen folklorea joratzera doanaren ikuspegitik. Eta emaitza ere halakoa izan da: egungo bizimoduarekin loturarik ez duten dantza, kantu eta abarren eskenaratutako errepresentazioa, eskenifikazioa, fosil bat bitrina batean jarrita bezala. Eta



Argazkiak: Anton Mendizabal.



Argazkiak: Anton Mendizabal.



Argazkiak: Anton Mendizabal.

beti gutxiagotasun konplejutik, beste kultura ordezkatzaillearen parean egon nahi eta ezin horretatik, Europa mendebaldeko ofizialdegiaren kulturaren formak baliatuz gure kultura ingurazten gaituztenengandik homologatua izan dadin: kantuak abesbatzen bidez ahots tekniarik finenarekin eta orkestrarekin lagunduta bada hobe, dantzak oholta gainean baletaren gisako teknika zorrotzekin. Eta honen ondorioz, erakunde hauek sortu ziren garaian adierazpide hauek guztiak oraindik biziak baziren, egun, gure artetik behin betirako ordezkatuak izateko kinkan daude.

Dantza eta kantua giza-lenguaia dira eta hizkuntzekin gertatzen den bezala norberaren bizi-esperientziarekin loturarik ezean, fosilizatu egiten dira. Euskaraz bizi garenontzat gure hizkuntza, bitrina batean gordetzeko Europako hizkuntza zaharrena baino zerbait gehiago da, lenguaia bizia da, aldioro egin eta berregiten duguna, ez da altxor bat, gauza bizi bat da. Ba dantzekin eta kantuekin ere antzeko zerbait gertatzen da, kalean, libertitzeko orduan festa tarteko, zentzuz betetzen ditugunean, zentzuz betetzen gaituztenean bizitzen ditugu eta egiten dugu dantza nahiz kantua bizi eta bizigarri, eta ez soilik eskenatokietan eta instituzionalizatutako gainontzeko emanaldietan.

Egun euskal dantzak eskenatoki batean argi eta kolorezko ikuskizun batekin lotzen ditugu, ez Zumardiko dantzaldiekin, ez txaranga atzetik mozkor-zopa goazela egingdako saltoekin, ezta kuadrilakoekin tabernazuloetan egiten ditugun dantza-saioekin. Dantzek, gizarte eta pertsona mailan betetzen zuten funtzioa galdu dute, zentzua

galdu dute eta gehienetan museoko harribitxi bat balira bezala erakutsi eta dantzatzen dira, hilik baleude bezala. Ereintzan aritutako urteetan ere inoiz inork ez zigun dantzen gaineko azalpen edo istoriorik kontatzen, dantzak hotz-hotzean, bere kontestutik kanpo, zentzurik gabe dantzatzen genituen; Galziara joan ginen batean, hango dantzari bat gurekin autobusean zetorrela Galizako dantzen jatorrien eta esanahien inguruan aritu ziztaigun hizketan eta gure dantzen galdetu zigunean zer erantzun ez genekiela gelditu ginen guztiak. Ez daukat ahazteko.

Arestian aipatutakoaren adibide garbi bat Erromeria Eguna bera dugu: Izenarekin hasita, Nafarroan eta Araban euskara ordezkatu izan den lurraldeetan antolatzen diren "Euskararen Eguna" izeneko festen antzera, gurean erromeriak iraganeko gauza direla adierazten digu izen horrek eta pentsamendu horren atzean, erromeria, baserri inguruko ospakizunekin lotzen dela susmatzen dut; kalean ez liteke erromeriarik egin ala? Bestalde, egun horretarako herritar ugarik soltu-dantza ikastaroak egiten ditu eta jantzi berriak josten



Argazkiak: Anton Mendizabal.

egun horretan luzitzeko. Izan ere bitxia da nola egun horretan jende ugari animatzen den "plazara dantzara". Urtean zehar izaten diren herriko gainontzeko festetan ordea jendeak ez du plazan dantzatu nahi izaten... ohartu al zarete? Erromeri Eguneko lehenengo ediziotik ezagutzen dut festa hau eta nago arestian aipatutako instituzionalizazio, glamourizazio, eszenifikazio, folklorizazio edo fosilizazioan erortzen ari ez ote den.. Beste hainbeste esan dezakegu San Juan bezperako soka-dantza, ihauteri hasierako sorgin-dantza eta abarretaz.

Eta gaitzaren diagnosi hutsean ez geratzeko tratamendurako aukerak pentsatzerakoan gure bizimoduan eta bizi-esperientzietan jarri beharko ditugu begiak: Erromeri Eguna erromeri bihurtuz, dantzen ikasketa irakaskuntza sisteman txertatuz, etab. Garai batean soka-dantzak eta sorgin-dantzak kintoek dantzaten bazituzten egun DBHko azken ikasturtean edo batxilerreko azken ikasturtean ari diren ikasleek nahiz euskaltegiko azken urratseko ikasleek dantza ditzakete. Esate baterako neska-mutil bikoteena ere egungo erreallitera egokitzen hasi direla ikusi dut, bizitza errealean bikote diren dantza-taldeko kideak San Juan bezperako soka-dantzan ere bikote gisa dantzatzuz, baina neska-mutil bikote heterosexistaren eske-ma zaharkitua geratu den garai honetan, neska-neska eta mutil-mutil bikoteak noiz ikusi zai nago, homosexualek euskal dantzaren eta orobat kulturgintzaren munduari egindako ekarpenarenganako begirune eta aitormen falta asko luzatzen ari baita.

Kantugintzaren munduarekin ere beste horrenbeste. Andra Mari Abesbatza Euskal Herri mailan punta-puntako abesbatza da eta zehazkiago euskal ereslarien errepertorioa kantatzen parekorik ez duena, Landarbaso ere bere bidea poliki urratzen ari da. Herrian ordea geroz eta gutxiago kantatzen da: kalean, tabernetan, afalosteetan eta festetan kanturako ohitura eten egin da eta musikagintzan ematen ari den globalizazioak ez du kultur adierazpide honen gizarteratzean laguntzen. Ereintzakoak Erromeri Egunarekin plazako dantzak gizarteratzeko beste urrats bat eman badute ere, kantugintzaren esparruan hasteke gaude; beste zenbait herritan kantu-afariak eta gisakoak antolatzen dituzte eta poliki funtzionatzen dutela dirudi. Ea berandu baino lehen

esparru honetan ere bideren bat urratzen dugun.

Euskal Herriko Txistulari Elkartearen 75. urtemuga ospakizunak eta Udal Txistularien Banda dela eta ez dela aurtengoan izandako gorabeherak tarteko, txistuarekin urteen poderioz herrian gertatu den gehiegizko instituzionalizazioa ere kezkatzeko modukoa da. Hauek dira Lau Haizetarak 84. alean egindako erreportaian Joxan Altuna elkarteko koordinatzaileak egindako adierazpenak: "Gu ez gara inoiz modan egongo, baina ez gara modaz pasako ere. Guk ez dugu lekurik gaueko hamabietan jotzen aritzeko, betiko lanak betzea da gure egitekoa. Txistulariok gure esparrua eta eginkizuna dugu, eta horri eutsi nahi diogu, ohiturak mantenduz". Adierazpen hauek txistua erasotua edo mehatxupean balego bezala jarrera defentsibo batean agertzen da Txistularien Elkarteko kidea, gaueko parranda girotik urrun "betiko lanak betetzen", prozesioak, dianak, alkate-soinuak eta erraldoiekin kalejira alegia... No future. Dultzaina, trikitixa eta gisako instrumentuak gaueko parrandetan problemarik gabe aritzen dira ba, txistuak akaso beste kategoria bat al du? Gutxiagotasun konplejua edo nahigo bada autokonfiantza falta ikusten da erreportaian barrena. Bertsozale Elkarte, Trikitilari Elkarte... nahi izanez gero, badago nondik ikasia.

Aipatu erakundeena lana bere garaian urrats handia izan bazen ere, egun beste baten premian ikusten ditut. Alegia, Ereintza Elkarteak eta Andra Mari Abesbatzak frankismoaren urte ilunetan abiatu zuten bere ibilbidea eta biak ere aitzindariak izan ziren kultur ordezkatzeko prozesuaz jabetu eta berreskurapen lan bat egiten, hau da, lehenago aritutakoei esker gaude gu orain erronka berrien aurrean, aitortza gutxienik zor diegu. Baina gerra-aurreko berpizkunde garaiko kulturgintzaren eskema diskurtsiboa antzeman izan dut herriko gaur egungo hainbat kultur eragilerengan eta hauen artean baita Ereintza eta Andra Mari jarraitzen duten elementu zenbaitzuren eta bere garaian besterik ezean aurrerakoia eta beharrezkoa izan bazen ere, egun zaharkituta dago eta mesedegarri baino kaltegarriagoa da. Gerra aurreko batzokietako kultur politika hau oraindik-orain hedabide publikoetan (EITBren irrati-telebistetan) isladatzen da nabarmen,

baita euskaraz alfabetatu gabeko kultur gile euskaldunengan eta ondorioz euskarazko prentsa irakurtzen ez dutenengan ere. Bizi dugun disglusia egoeran, euskal hiztun alfabetatu edo osoa ez izateak autokonfiantza galtzea dakar eta honek norberari segurtasun eza eta nola-baiteko beldurra sortzen dizkio eta ondorioz gutxiagotasun konplejuak, blokeoak eta jarrera defentsiboak agertzen dira. Egoera anemiko honetatik garatutako edozein jarduerak ez dira inorentzat erakargarriak eta galtzeko guztiak dituzte.

Lehenago esan bezala gure kultur adierazpideak hizkuntzekin gertatzen den bezala nor-



Argazkiak: Anton Mendizabal.

beraren bizi-esperientziarekin lotu ezean, fosilizatu egingo zaizkigu eta folklore bihurtu. Berriro biziberritu nahi baditugu diskurtso zaharra gainditu eta bizitzako esperientzia bizigarri eta motibagarrien bidez gureganatu behar ditugu, festaren bidez alegia; gure festak berrinterpretatuz, kantu eta dantzekin festaren jatorrizko funtzioa eta zentzua berreskuratuz. Kulturen arteko egiazko berdintasun eta osagarritasunetik abiatuta bakarrik lortuko dugu gure kultur

adierazpideak kultur adierazpide erdaldunak bezain unibertsalak izatea.

Eta behin festa aipatu dugunez, kultur gintzarekin duen lotura estuagatik eta hausnarketarako beste gai bat mahaigaineratuz, gure herriko festei errepasso bat emango diet:

Erreterian beste herri batzuetan ez bezala, Madalenak kenduta, herrian ez dugu urte guttian barrena geure-geurea dugun bestelako festarik eta sormenari leihoa zabaldu beharrean festak nahiz ekitaldiak kopiatu egiten ditugu. Donostian modu batera edo bestera sortu, garatu, instituzionalizatu eta gizarteratu diren hainbat festa, kopiatu egiten ditugu: Santo tomasetako feria, kaldereroak, ihauterietako desfileak eta danborradak esate baterako. Beste herri batzuetan urteekin ohitura zaharrak berreskuratu dituzte edo besterik gabe tradizio berriak sortu dituzte. Arrasate adibide garbi bat da: Maritxu Kajoi festa, txikiteroen zaindariaren festa da eta duela bi edo hiru hamarkada sortutakoa da. Santamasak ere besteek baino egun bat beranduago ospatzen dute abenduaren 22an eta herriko lantoki eta komertzioetan jaieguna izaten da egun horretan. Hain urrutira joan gabe, Lezon esate baterako ihauterietan 'Trapujale' pertsonaia asmatu dute eta urtetik urtera errotuago dago. Guk gure herrian beharrezko osagai guztiak izaki eta festa kontutan fotokopien fotokopiekin beti; gogo pixka bat eta gisa honetako hausnarketek sortzen dituzten txinpartek sormenaren sua piztea besterik ez da falta. Donostiak erakarpentzen ahalmen handia du eta bere ondoan bizitzeak eta geure festak ez sortu eta sustatzearen prezioa ordaintzen ari gara; baina hau beste upeleko sagardo da eta ez naiz gehiago luzatuko.

Idazlan honetan barrena errepassatu ditudan kultur erakundeetako eragileen eta hauen lanaren aitortzatik, honekin guztiarekin, kultur gintzako aipatu esparruetan nabarmena den estankamendua, hausnarketa urria, eztabaidarako gune baten gabezia eta bere arriskuak agerian jarri eta aukera desberdinak badirela gogora ekarri nahi izan dut. Herriko euskalgintzaren guneak ateak zabalik behar ditu, kultur gintza euskaratik (beraz euskaraz eta euskarenen logikatik) landuko badugu.